


Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Cocina fresca

Karlos Arguiñano

BAINET MEDIA

200 orrialde

22,95 euro

Arguiñanoren plater freskoak

Bero egiten duenean edonori gustagarri zaizkion era guztietako plater freskoen errezetak eskaintzen ditu Karlos Arguiñano sukaldariak Baintet Media argitaletxearen eskutik plazaratu duen *Cocina fresca* liburuan. Laura 10m-ek egindako argazki ederrez lagundurik datozen plater hauen bereizgarriak adierazkorrena eguraldiak berora jotzen duenean jateko prestatuak izatea da. Denetarik aurkituko duzue liburuan: entsaladak, berdurak eta barazkiak, arrozak, pastak, krema eta zopa hotzak, arrautzak, hegaztiak eta bestelako haragiak, mota askotako arrainak eta itsaskiak. Adibideak? Bakailao

eta piperrekin egindako pastel hotza, karabiar erara prestatutako arroza, eta udaberriko menestra ur irakinetan egindako arrautzekin. |

Neska txiki bat eskolara itzultzen

Kamile pozik dago oporren aurretik jostatzera joan ohi zen eskolara itzuli behar duelako. Lagun asko egin zituen han eta badaki eskolara bizkar zorro berria eta hamaketakorako txokolatezko bizkotxoak gainean dituela iristen denean, hantxe aurkituko dituela. Kamilek lehengusu txiki bat du ordea, Mattin, bera baino urtebete gazteagoa, eta jakin badaki Mattinek beldur pixka bat diola eskolara joan behar horri. Izan ere, mutikoa ez da inoiz eskolara joan eta ez du hango ezer ezagutzen, Kamile bera salbu. Zer gertatuko ote zaio leku arrotz horretan? Iritsi da azkenean eskolara joateko eguna. Kamilek laster esan dio agur amari, lagunengana joateko. Mattinek berriz, ez du bere gurasoen ondotik alde egin nahi. Kamilek eskutik heldu eta andereñoarengana eraman du. |



Kamile eskolan da berriro

Anne de Pétigny

TARTTALO

18 orrialde

4,70 euro



Euskal Herria

Batzuen artean

SUA

130 orrialde

5,30 euro

Historian barrena Euskal Herriari eginiko kartografia

Mendia, kultura, natura eta bidaiak gai gisa dituen *Euskal Herria* aldizkariak bere azkeneko zenbakian, Lapurdi aldea ondo ezagutu ahal izateko hogeita bost ibilaldi proposatu ditu, hango hiri zein herritxo, itsasbazter eta mendi gailurrei bisita egitea gomendatuz. Ederra da, duda gabe, aukera hori, baina abuztua eta iraila bitarteko zenbakiak badu eskaintza bitxiagorik ere: esaterako, historian barrena Euskal Herriari egin zaizkion mapen artean bidaiatzeko egiten digun gonbidapena. Jakin nahi al zenukete gure herri txiki hau noiz agertu zen aurreneko aldiz munduko mapan? XI. mendean izan zen, antza denez. Saint-Sever monasterioko lagun batek jarri omen zituen munduko mapan Wasconia hitza, Aturri ibaia eta Pirinioak. |

Irakurketak eta horoskopoko bitxia

Idazle Eskolak plazaratzen duen *Luma berrien eleak* aldizkariaren azken zenbakian, idazle berrien sorlanak, iritziak, ipuinak eta poesiak irakur daitezke. Iñaki Alkainen *Gerrateko ibilerak I*, Sebastian Salaberriaren *Neronek tirako nitzekin*, Alberto Ladron Aranaren *Eguzki beltzaren sekretua*, Iñaki Isasmendiren *Nire denboraldiko ibilerak*, Angel Lertxundiren *Ihesbetea*, Jeremy Benthamen *Panoptikoa* eta Laura Mintegiren *Ecce Homo* liburuei buruzko azalpenak, Gorka Garatek Harkaitz Canori eta K. Olatek Mari Aburtori egindako elkarrizketak ere agertzen dira. Aldizkaria osatzeko Mariasun Landaren hainbat sorkuntzaren gaineko aipamenak eta Andoni Etxeberriaren horoskopoa ere badakartza. Planetek beste izen batzuk hartzen dituzte horokopo horretan: Mariren orrazia, Eibarko liburua, Adolfo, Zakila, Patata, Kaka edo Vietnam, adibidez. |



Luma berrien eleak

Batzuen artean

IDAZLE ESKOLA

58 orrialde

3 euro



Lunas de papel. Una aventura de Cornelius Moon

Fermín Solís

DIB-BUKS

46 orrialde

10 euro

Bizitzaren alde ilunean dabilenaren abenturak

Fermín Solís-en komiki honen protagonista Cornelius Moon da. Konpainia aldrebesarekin eta baimenik gabe etxeetan argazki lizunak egiteagatik preso egon ondoren espetxetik atera berria da. Bideo-klub bat erosi du modu onean, eta ezer gutxi irabazten duen arren, pozik dago han bertan bizitzeko aukera dautakalako. Halako batean, telefono dei bat jaso du, bere garairik onenean plazaratu zuen argazki lizunen liburuan agertzen den emakume bat aurkitzeko dirua eskainiz. Cornelius ez da emakume horretaz gogoratzen, garai hartan mozkor-mozkor ibili ohi zelako gau eta egun, baina eskaintzen dioten dirutza oso tentagarria zaio, eta argazkikoaren atzetik hasiko da. ■

Ezusteaz betetako espetxean bukatu zuen otsoaren istorioa

Otso basatia kokoteraino dago ipuin guztietan beti galtzaile ateratzen delako. Oraingoan ez da hala izango, dio Ibaizabal argitaletxeak etxeko txikientzako ezuste txundigarriak beteta plazaratu duen liburu honetan. Kurrin, Murrin eta Hurrin txerrikumeak bere sabelean bukatzea nahi du otsoak, ez besterik. Kurrinekin gauzak ondo aterako zaizkio, paperezko etxea duelako. Murrinekin beste hainbeste, kartozko etxea egin duelako. Baina Hurrin oso azkarra da, eta por-lanezko etxea du, hiriaren erdian gainera! ■

3 txerrikumeak

Cyril Hahn

IBAIZABAL

14 orrialde / 14,50 euro



MIKEL AIZPURU

«Baliteke inoiz zehaztasunez ez jakitea zenbat hil zituzten»

Balora ezazu egin duzuen ikerketa.

Emaitzak behin-behinekoak dira eta baliteke inoiz ere zehaztasunez ez jakitea zenbat pertsona hil zituzten Hernanin. Ez genuke haien senitartekoen itzaropena inolaz ere desagerrarazi nahi, ezta gure lana gutxietsi ere. Hernanin hildako eta lurperatutako pertsonen kopururik handiena identifikatzea genuen helburu. Gure eskura zeuden iturri guztiak erabili ditugulakoan gaude. 129 izen bildu ditugu, haien adina, egoera zibila, generoa, jatorri geografikoa, ogibidea eta lerrokatze politikoa-aren azterketa egin dugu; baita zein egoerak eraman zituen heriotzara ere. Gure ustez, Hernanin hildako gehienek ez zituzten gutxieneko berme prozesalak izan. Hau da, ez ziren epaituak izan eta beren heriotza ilegalki erabaki zen. Beraz...

Ez dago dokumentaziorik?

Gertatutakoari buruzko dokumentazio eza da Hernaniko kasuak dokumentuen ikuspuntutik eskaintzen duen ezaugarri nagusia. Ez agiritegi zibilek, ez militarrek ez eta erlijiosoek ere ez dute ehunka pertsonaren atxiloketa, espetxeratze eta ondorengo hilketen inguruko dokumentaziorik gorde.

Hernanin zortzi apaiz hil zituzten, Aitzol tartean. Elizak ere ez al dizue zuen lanean lagundu?

Ezin izan ditugu Elizak Katolikoaren agiri ofizialak kontsultatu, bere araudiek, salbuespenak salbuespen, informazioa sortu zenetik 75 urte igaro arte ezingo dela kontsultatu xedatzen dutelako, eta 70 urte besterik ez da igaro Gerra Zibila hasi zenetik gaur arte. Gasteizko Elizbarrutiko Artxiboak eta Iruñekoak ere atek itxirik dituzte ikertzaileentzat.



JUANAN RUIZ / A.P.

Ikerketa, Hernanin frankistek hil zituztenei buruz

2004an, Hernaniko Udalaren ekimenez, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailak eta Gipuz-

koako Foru Aldundiko Giza Eskubideen Sailak hitzarmen bat sinatu zuten EHUKo Historia Garaikidearen Sailarekin. Horri zor zaio Mikel Aizpuru unibertsitateko irakasleak gidatutako ikerketa taldeak –Jesús Mari Gómezek, Urko Apaolazak eta Jon Odriozolak osatutako taldeak– burutu duen *1936ko udazkena Gipuzkoan: Hernaniko fusilatzeak* izenburuko lana. Oindi menditik jaitsiz Hernani hartu zuten Errepublikaren aurkako tropa matxinatuek 1936ko irailaren amaieratik azaroaren hasierara bitartean herri horretan desagerrarazi zituztenei aurpegia eta biografia jar-tzen ahalegindu dira ikerlariok, beren lana, besteak beste, atal hauetan banatuz: Errepresioaren memoria(k) edo historia(k); Gipuzkoa Bigarren Erre-

egileari galdezka



1936ko udazkena Gipuzkoan: Hernaniko fusilatzeak

Batzuen artean

ALBERDANIA

324 orrialde / 28 euro

publikan (1931-1936); Gerra Zibila Gipuzkoan: erresistentziak eta erasoak; Gerra Zibileko errepresioa bi aldeetan: ereduak eta datu orokorrak; Frankisten fusilatzeak Gipuzkoan; Errepresio paralegala eta Hernaniko fusilatzeak; Bi egoera berezi: *Galernako* fusilatzeak eta elizgizonenak; Errepresioa Hernaniko herritarren aurka; Fusilatuen nortasuna; eta Iturriak eta bibliografia. ■